



## ARRIGORRIAGAKO UDAL EUSKALTEGIA ERAKUNDE AUTONOMIADUNAREN TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

### 1. Zioen azalpena

Jarraian, Arrigorriagako Udal Euskaltegia erakunde autonomoak zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantza jasotzen da.

### 2. Tasak

Ondoko hauek dira Arrigorriagako Udal Euskaltegia erakunde autonomoan zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko tasak, orduko eurotan adieraziak:

Tasa mota / Tipo de tasa	€/ordua-hora
Matrikula arrunta / Matrícula ordinaria	1,00
Matrikula berriztea / Renovación de matrícula	0,90

1. Irailaren lehenengo hamar egunetan hurrengo ikasturterako matrikula formalizatuz gero, 50 €-ko beherapena izango dute ordaindu beharreko zenbatekoan.

2. Matrikula egiten duen pertsona edo subjeto pasiboa bizi den bizikidetzaren unitatea indarrean dagoen diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa baino diru-sarrera gutxiago jasotzen ari badira, matrikulari dagokion tasa zero eurokoa izango da.

Era berean, tasa zero eurokoa izango da langabezia-egoeran dauden pertsonentzat.

Horretarako, egoera horiek egiaztatzeko dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte. Horrez gain, tasa zero hori mantentzeko goragoko ikasturteetan, aurreko ikasturtean euskara ikasteagatik dirulaguntzak jasotzeko ezarrita dauden asistentzia- eta aprobetxamendu-baldintzak bete izana eskatuko da. Hara ere, beharra dagoen salbuespeneko kasuetan asistentzia- eta aprobetxamendu-egiaztapena baztertu ahal izango da.

3. Matrikula berriztatu dela ulertuko da ikasleek matrikula berria egiten dutenean, edo ikasturtean bertan, edo jarraikakoetan.

4. Tasa desberdinak aplikatzeko aukera egonez gero, ikaslearentzako onuragarriena dena aukeratuko da matrikularen zenbatekoa kalkulatzekoan.

5. Erakunde, enpresa edota nortasun juridiko publiko nahiz pribatua duen elkarteren batetik dirulaguntza jasoz gero, ohiko matrikulagatik tasak baino ez dira aplikatuko matrikularen zenbatekoa kalkulatzeko orduan.

6. Erakunde publiko nahiz pribatuek hala eskatuta Udal Euskaltegiak langileek ikastaroak ematen dituztenean, Arrigorriagako Udal Euskaltegiaren Artezkaritza Batzordeak finkatuko du ikastaro bakoitzarengatik tasa; betiere, emandako zerbitzuaren edota burututako jardueraren kostua kontuan hartuta. Dagoeneko aipatu ditugun ikastaroetarako eskaintzez gain, gainera, Artezkaritza Batzordeak erabakitako tasak ere aplikatu beharko dira.

### 3. Kudeaketa-arauak

1. Zerga egitatea Udal Euskaltegiak ikastaroak emateagatik zerbitzua denez, ordaintzeko betebeharra adingabe batek izango balu, horren legezko ordezkariari dagokio ordaintzea hori egitea, matrikula formalizatzen den unean bertan; zerbitzua eskatzen duena talde, elkarte edota erakunderen bat izanez gero (publiko zein pribatua), zerbitzua eskatu duen pertsonak egin beharko du ordaintzea, gainerako kide, elkartekide edota langileen izenean.

2. Behin ikasturtea hasita alta direnentzat, matrikularen zenbatekoa hiruhileko horretan eta hurrengoetan emandako eskola-orduen arabera kalkulatu da.

3. Tasaren sortzapena matrikula eskaera aurkeztean izango da. Matrikularen zenbatekoa ikastaroaren hasieran oso-osorik edo %50eko bi ordaintzetan ordaindu beharko da. Ordaintzea epetan ordaindu nahi izanez gero, dagokion eskaera bete eta idaz-



karitzan aurkeztu beharko da matrikularen eskaerarekin batera, betiere, 50 euroko edo hortik gorako matrikulen zenbatekoak badira.

4. Tasaren ordainketa matrikulatzen den pertsonak berak emandako eta baimendutako banku-kontuko karguaren bitartez egingo da. Ordainketa epetan izanez gero, lehenengo kargua matrikula formalizatzen den unean egingo da eta bigarren kargua hurrengo hilabetean.

5. Norbaitek matrikularen baliogabetzea eskatuko balu, Presidente delegatuak, aztertu ondoren, ebazpenaren bidez ebatziko du.

6. Matrikulatugaiari ezin egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, zerbitzua gauzatzen ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

7. Ordaindu gabeko tasak egonez gero, eta egoera horrek iraun bitartean, ezingo da zerbitzu berririk eskuratu. Beraz, ez da matrikula berririk onartuko zorra ordaindu arte